

Bero-beroan

ONINTZA IRURETA

Pérez-Nievasen promesak

310.000, 240.000, 9.567, 250.000. Euskarazko hedabideen eta Pérez-Nievasen arteko harremana zifra horietan laburbildu daiteke. Iaz 310.000 euroko diru-laguntza izango zutela uste zuten hedabideek, 240.000ra jaitsi zen, eta gero kolpera 9.567ra erori da. Bortzirietako Euskara Mankomunitateko kideak Hezuntza kontseilariarekin bildu dira eta hark esan die ahaleginak egingo dituela diru-laguntzak 250.000 eurokoak izan daitezkeen. Orain bai, orain ez, orain bai, orain ez... jolasa balitz bezala. Xabier Azanza Euskarabideko zuzendariak ildo bera segitu du. *Diario de Noticias*en esanak dira ondokoak: “Beti izango da, adibidez,

Tipi-ttapa Telebistaren itxiera Nafarroako Gobernuari aurpegiratuko dionik, laguntza ekonomikoa 19.000 eurotik 13.000 eurora apaldu izanagatik; baina ez dute sekula esango Tipi-ttaparen aurrekontua nola pasazen 201.000tik 293.000ra krisi urte batean”. Sutu ditu hitzok hedabideetako kideak.

Bost elkarte berri Topagunean

URTEKO BATZAR NAGUSIA egin berri du Topaguneak eta besteren artean bazkide berriei ongi etorria egin die. Ondokoak dira bost elkarteak: Egizu Getxo Euskaldun elkarte (Getxo), Alozo elkarte (Zeanuri), Berbalamiñe elkarte (Leioa), Xaloea telebista (Baztan-Malerreka-Berti-

zarana) eta Xorroxin elkarte (Baztan-Zugarramurdi-Urdazubi-Malerreka-Bertizarana-Bortzirietak).

Zuzendaritza Batzordea berritu da, bestalde: Durangoko Berbaro Elkarteko Ione Narbaiza, Araitz-Beteluko Mailope Elkarteko Urko Aristi eta Aritz Escandon irten dira, eta haien ordez Berbaro Elkarteko Nahia Zarzosa eta Amaia Alberdi arituko dira. Karmen Irizarrek presidente izaten jarraituko du hiru urtez.

Galizieraren erabilerak azkar egin du behera

“BERRIA-K dakar Carlos Callon Hizkuntz Normalizaziorako Mahaiko presidenteari egindako elkarrizketa, eta hala dio: “Oso bitxia da; galizierak mendeetan izan duen hiztun beherakadarik handiena orain gertatu da: hain justu, autogobernu minimo bat dagoenean, Xunta bat duguenean; Konstituzioak ere teoriarik hizkuntza koofiziala dela dioenean. Beraz, Galizian izan diren gobernuen hizkuntza babesteko politikek huts egin dutela esan daiteke”. Azken ikerketaren arabera (2004koa), hamabi urtean %22 jaitsi da galiziera hiztunen kopurua.

TALAIAN

G-20 eta greba orokorra

Joan den astean bi gertaera politiko-finantzario eta ekonomiko-laboral-sozial izan ziren: G-20a Londresen eta greba orokorrerako deialdia Hego Euskal Herrian. Sindikatu abertzaleek egin dute deialdia lanpostu galaren eta patronala krisi garaian egiten ari den xantaiaren kontra.

G-20ak munduko agintari politiko nagusiak biltzen ditu. Uste bezala, ez dute zalantzan jarri 1929az geroztik krisirik latzena eragin duen sistema ekonomiko eta finantzarioa (kapitalista). Sistema hori defendatzen segitzen dute, nahiz eta jakin kudeatzaileak benetako “putreak”, “marrazoak” eta “harrapariak” direla; behartsuen, langileen eta Herrien odola zurruputzen dutenak. Beraz, hartutako neurriek ez dute arazoaren sustraietara jotzen, helburua kapitalismoa “erreformatzea” da, salbatzeko eta mantentzeko.

Lider politiko batzuek, esate baterako Zapaterok eta Sarkozy, esan dute G-20ak paradisu fiskalak ezabatu behar dituela, kapitalismoaren, espekulatzailen, bankarien, kirolarien... gotorlekuak direlako. Ez zuten onartu ezta paradisu fiskalen “zerrenda beltza” argitaratzea ere. Gardentasuna aipatu zuten, eta kasu batzuetarako, zigorra. Paradisu fiskalak ezabatzeaz ezer ere ez. Hori jakinda burtsak ziztu bizian egin zuen gora!

Ordua da langile klasea eta sektore popularrak, krisiaren ordaintzaileak, mugitzen has daitezkeen eta eredu ekonomikoa aldatzeko apustua egin dezaten mundu mailan. Ongi etorria maiatzaren 21erako Hego Euskal Herrian greba orokorra deitu dutenei: ELA, LAB, ESK, STEE EILAS, EHNE eta HIRU. Urtarrilean eta otsailean Frantziako Estatuan eta Iparraldean ere izan dira grebak. Ea hurrengo deialdietan batasun gehiago dagoen kapitalismoaren eta kudeatzaile politikoen aurka.

Juan Mari Arregi

BAHEA

Igor Elortzak Berrian esanak:

“Zergatik ez egin hiru hizkuntzatarako emanaldiak aldebereko itzulpenarekin, adibidez, raperoak gaztele-raz, poetak frantsesez eta bertsolari-ek euskaraz?”.

Patri Urkizuk *Diario Vascon* esanak:

“Nire ustez, euskal literaturaren ikuspegi osatuago bat izateko literaturaren ikuspegitik ere aztertu beharko lirake bertsorak. Besteak beste, liburuak baino askoz ugariagoak direlako, erlijiozkoak izan ezik euskal liburuen produkzioa oso eskasa izan baita bertsorak paperekin konparatuz gero”.

Bi urteko biziraupena ematen diote Lopezen gobernuari

KAZETARIAREN GALDERA: "¿Eta etorkizun horretan, 'normala' ote da PSE eta ezker abertzalearen arteko gobernuak izatea?" Eta Patxi Lopezen erantzuna: "Ez dut oso gertu ikusten etorkizun hori. Baina batzuk beldur dira hipotesi hori egunen batean egiazkoa izatea". 2005eko azarokoa da Vocentoko egunkariak egindako elkarrizketa eta su-eten zurrumurruak eten bakoak ziren. Batasunaren eta PSEren ezti garaiaz hitz egiten zuten orduan jeltzaleek. PPren esanetan, Zapaterok eta ETAK elkarren beharra zuten. Lau urte geroago PPko Arantza Quirogak hartu du Eusko Legebiltzarreko lehen-dakaritza, PSEren eta PPren gobernu akordioari esker.

PSE-EEK bakarrik osatuko du Gobernua eta, aipatu akordioaren ondorioz, PPk ez du zentsura moziorik aurkeztuko, baldin eta akordioa betetzen bada. Baina, jakina, hitzarmenak betetzeko zein apurtzeko daude, idatzitakoaz egiten den interpretazioaren arabera. Demokrazia, askatasuna, bakea, biolentzia, abertzaletasuna, hizkuntz politika, EITB eta beste zenbait konturi buruz egiten diren irakurketak bolo-bolo utzi du hau "Mayor Oreja-Redondo Terremos" garaia bertsio biguna dela.

Baina ez, PSEko buruzagiak hasi dira lau haizetara zabaltzen ezetz, ez dela horrela izango eta orain sozialisten txanda dela. Quirogaren hautaketa eta dokumentuaren agerpenarekin, PPri bukatu zaizkiola kaperatik atera ditzakeen untxiak. Jesus Eigurenek eta Jose Antonio Pastorrek gisakoak haizatu dituzte hurrenez hurren *El País* eta *Gara*-ko elkarriketetan.

Patxi Lopezi hauteskunde emaitzek *oparia* jarri diote eskuetan, eta agian bazkidez aldatu behar izan du. Askok pentsatzen dute jeltzaleei begira zegoela, baina berak irabaziz gero. Bestela izan da eta hanka bat Ajuria Enean du jada. Lehenengo helburua bete da, baina iragarpenak ez dira onak: gehienek ez diote bi urteko bizitza ematen 25 parlamentariz sostengatutako gobernu berriari. Eigurenek ere, beste arrazoi batzuk tartean, 2011ko mugarria jarri du aipatu elkarriketan: "Ezker abertzalea bide amaieran da"... "eta erabaki bat hartu beharko du bi urte baino lehen, udal hauteskundeak baino lehen". Aldi berean, bi urteren epean bakea euskal gizartera iritsiko dela dio. Eiguren prozesuaren gizona da PSOn eta bere berbak adi jarraitu behar

dira, baina oraingoak beste ezer baino gehiago bere gobernuari haizea emateko berbak dirudite.

MAIATZAREN 21EKO greba deialdia ere giroa beroagotzera etorri da. Eta asko dira "ordua zen" esan duten herritarrak. Gobernu berriaren kontrakoa ei da. Frantzia ez da gobernu aldaketarik izan, baina dagoeneko erabili dute greba orokorra. Bidasoaren ipar-hegoko bi konstituzioetan legezko jokabide gisa ageri da eta langileen eskubide eta interesak defendatzeko ohiko tresnatzat jotzen da mundu zabalean. Jakina ez duela ezer konponduko, baina larriagoa da orain arte mendebaldeko gobernuak jarritako milioika milioi euroek ezer konpondu ez izana. Grebak ez dira ezer konpontzeko, protesta eta presiorako tresna baizik. Funtsean, bakoitza bere lekuan jartzeko balioko du, eta bere onurarik nagusia zera izango da, kapitalismoaren krisi honen oinarritzko interpretazio bateratua egiten dutenak bat egiten hasten direla erantzunetan ere. Hego Euskal Herria esparru gisa hartuz gainera, ELA eta LAB buru, gehiengo sindikala berriz ere norabide egokian dela erakutsiz.

ARGIA-K SUSTAPEN ARDURADUNA BEHAR DU



Eskatzen dena:

- Euskara: Ondo hitz egitea eta idaztea.
- Marketing edo harreman publikoak edo komunikazioa: ikasketak edo esparru horietan bildutako esperientzia.
- Autoa

Kontuan hartuko dena:

- Antzeko lanetan eskarmentua izatea.
- Talde lanean jarduteko gaitasuna.
- Euskal kulturaren ezagutza.

Lanpostuan interesa duenak, bidali dezala bere curriculuma ondoko helbidera apirilaren 30a baino lehen: curriculum@argia.com